

Donostian, 2010.eko uztailaren 23an

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario
Arejita, Adolfo
Charriton, Piarres,
Davant, Jean-Louis
Haritschelhar, Jean
Larre, Emile,
Oñederra, Miren Lourdes,
Txomin Peillen,
Salaburu, Pello,
Sarasola, Ibon,
Toledo, Ana,
Patxi Uribarren,
eta Zabaleta, Patxi
euskaltzainak

Pello Telleria idazkariordea, Alfontso
Mujika eta Mikel Gorrotxategi jaunak,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia
Arkotxak, ahala Lourdes Oñederrari;

Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari;
Patxi Salaberrik, ahala A. Iñigori; Mi-
ren Azkaratek, ahala P. Salabururi;
Joan Mari Torrealdaik, ahala A. Sagar-
nari; Joseba Lakarrak, ahala Miren Lo-
urdes Oñederrari; eta Mikel Zalbidek,
ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Donos-
tian, Gipuzkoako Diputazioaren Jaure-
giko Batzar-aretoan, ezkerreko zuta-
bean ageri diren euskaltzainak bertan
direla.

1. Aurreko akta onartzea. Ez da oha-
rrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren
akta ontzat eman da.

2. Hasi aurrekoak. Euskaltzainbu-
ruak, bilduak agurtu ondoren, akade-
miaren ekitaldiak goizean bakarrik
izango direla ohartarazi du.

3. Onomastika:

3.1. Euskal Herriko ibaien izenak»
2. zerrenda onartzea. Andres Iñigo eta

Mikel Gorrotxategi mintzatu dira aurrekoan aurkezturiko 2. zerrenda honetaz, Bizkaiko Golkora doazen ibaien mapa hidrografiko batez lagundurik, P. Galek eginkoaz Ibai bakoitzaren izenarekin batera oharra eta bilduriko dokumentazioa erantsi da, lekukotasun historikoak eta berezitasunik nabarmenenak azaltzeko. Izen bat baino gehiagoko hidronimoaren kasuistika xehatu da, ibai batzuek beren ibileran izen bat baino gehiago izaten baitute, zeharkatzen duten tokiaren inguruko herri-izenaren arabera.

J. Haritschelharrek eginiko galderari erantzunez, A. Iñigok argitu du *Maldako erreka* eta *Maldaerreka* bezalakoetan, erabileraren arabera formula biak onesten direla.

Bidasoa izena dela eta, A. Iñigok aspaldiko eta gaurko erabilera nagusia kontuan harturik, azken hitzaren azken *-a* hori kasu absolutiboaren markatzaile hartzea proposatzen du. Horrela onartu da.

3.2. Euskal Herriko udal izendegiaz egokitzapen proposamena: A. Iñigok azaldu duen bezala, Euskaltzaindiak jada onarturiko 141. arauak (**Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera**) xedapen konkretua jarri zuen izen bikoitzez (bata euskaraz eta bestea erdaraz zirenean: **Agurain / Salbatierra, Donostia / San Sebastián, Baiona / Bayonne** gisakoak). Beraz, euskarazko bi izen berezien kasuan ez da zehar-marra erabili behar, koma (,) baizik. Horren arabera hauek lirateke egin beharreko egokitzapenak:

92. araua **Montori / Berorize** → **Montori, Berorize. Urdatx / Santa Grazi** → **Urdatx, Santa Grazi** eta 108. arauan **Biarritz / Miarritze** → **Biarritz, Miarritze** gelditzen dira.

Era berean, arau bereko 3. puntuaren arabera, lekua, gehi eskualdea, harana edo ibarra adierazten duten herri-izenetan, lehenengo herriaren izena eta, ondoren, argitzeko ezinbestekoa balitz, tarteko marrarik gabe erantsiko da beste osagaia: **Donibane Garazi, Donibane Lohizune, Uharte Arakil, Etxarri Aranatz...** adibideetan bezala. Beste kasuetan ez da beharrezkoa izango, zalantzarik kasuetan erants dakiokkeen arren: **Getaria** eta **Jatsu** soilik edo, bereiztekotan: **Getaria Gipuzkoa, Getaria Lapurdi**, esaterako. Kasu berezia Pagola herriarena da, duen administrazio bereziagatik Nafarroa Behereko eta Zuberoako zerrendetan agertu beharko luke eta.

Azkenik, Zuberoako **Zühara** udalerriko herritar izena falta da: **zühara** alegia.

Beraz, horren eraginez, Onomastikak batzordeak, aurtengo uztailaren 2an Altsasun eginiko bileran, orain arteko toponimo-zerrendetan aipaturiko ukituak egi-

tea ontzat eman eta Euskaltzaindiak berrestea erabaki zuen. Era berean, Onomastika eta Exonomastikarekin zerikusirik duten arau guztiak aztertu eta homologaziorako egin beharreko aplikazioak gauzatzeko batzorde ahaldundu bat izendatzeko eskaria egin zuen.

Euskaltzaindiak moldaketa eta ukitu guztiok ontzat eman eta batzorde ahaldundu hori sortzea onetsi du.

3.3. Exonomastika batzordeari buruzko azalpena ematea. J.L. Lizundia batzordeburuak Exonomastika arloko lexikoaren garrantzia azaldu du, irakaskuntza (geografia), kazetaritza (nazioarteko berriak eta kirolak), administrazio eta aldame-neko herrialdeak aipatzeko orduan maiz gertatzen diren zalantzak erabakitzeke. Alfonso Mujika idazkariak, berriz, Euskaltzaindiak arlo honetako eztabaidak gidatzeko asmoz orain arte plazaraturiko lanak gogoratu ditu: Euskal Herriko udalen izendegia (K. Mitxelena berak zuzendua), Estatuena, bai eta arlo horretaz kezkatu- turik eginiko saioak eta bilerak ere: Leioako biltzarra, 1994an; 1994ko maiatzeko Exonomastika Jardunaldien ondoan Euskaltzaindiak egindako adierazpena, Santuen izenak, antzinako eskualdeak, hiriak etab.

Exonomastika batzordea 2007an eratu zela gogorarazi du, horren partaideak aipatuz: J.L. Lizundia, X. Kintana, I. Irazabalbeitia, M. Gorrotxategi, A. Mujika eta Irene Arrarats.

Ondoren, toponimoak bildu, sailkatu eta hautatu, orraztu eta bahetzeko ibilbide guztia xeheki azaldu du pantailan batzorde-idazkariak, azken emaitza Euskaltzaindiaren aurrean, onarpen eske, aurkeztu arte. Eginiko galderei ere erantzun dizkie A.Mujikak. J.L. Lizundiak, bukatzeko, hemendik aurrerako pentsaturiko lanak ere aipatu ditu gainetik, gorago esandakoez gainera, bidaia-agentzietan, esaterako, izan dezaketen eragina azpimarratuz. Euskaltzainburuak A. Mujikari eta gainerako batzordekideei eskerrak eman dizkie.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia eta Hiztegi Batua (2. itzulia) batzorde ahaldunduen lanari buruzko azalpena ematea. Andoni Sagarna batzordeburuak Euskaltzaindiaren Hiztegia (Adierak eta adibideak) eta Euskara Batuko hiztegiaren 2. itzuliaren orain arteko egoera azaldu du. Horretarako, paperean idatzirik eta pantailaz baliatuz, eginiko ibilbidea pausoz pauso argitzen aritu da, eta batzordearen osaera, eginkizunak, zuzendaria, aritzeko prozedura eta beteriko epeak, orain arte eginiko bilerak eta amaitu arte falta direnak aipatu ditu. Hasieratik aurreikusten zen bezala, *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* 2011ko uztailaren amaierarako bukatzea espero da. *Hiztegi Batua (2. itzulia)*, ordea, aurtengo aben-

durako amai daiteke, baina begiespenez beste urte beterako iraupena duenez, oraindik erabat erabakitzeko edo berrikusteko gelditu diren puntuak (hitz izartxodunak (*), e eta h daramatenak, kasu) ebazteko astia izanen dela pentsatzen da.

Amaitzeko, euskaltzain batzuen iruzkin eta argitasun-galdera batzuk erantzun ditu A. Sagarnak. Eskerrak eman zaizkio.

5. EURALEX Nazioarteko Kongresuaz. Aurtengo uztailaren 6tik 10era Fri-siako Leeuwarden/Ljouwert hiriburuan XIV. Euralex kongresua izan da, lexikografiari eta lexikologiari buruz. Antolatzaileak: Frisieraren Akademia eta Niderlanderaren Leidengo Lexikologia Institutua. Euskaltzaindiak batzar horretan bere ordezkaria izan du, Andoni Sagarna, hain zuzen, hara euskararen berri eramateko. Gure Iker sailburuak Europako erabilera urriko edo estaturik gabeko hizkuntzen lexikografiaren egoera azaldu du, paperean ekarritako datu eta mapa argigarriekin. Hor, mintzaira horiek lege, erabilera eta ofizialtasun aldetik dituzten ezberdintasunak eta bakoitzaren kasuistika berezia islatzen da, lantze eta ekoizpen aldetiko emaitzen argitan. Giro bereko beste hizkuntzekin konparaturik behintzat, euskara ez dagoela hain egoera txarrean nabarmendu da, parametro batzuen arabera lehenengo edota bigarren mailan agertzen baita. Kongresuko aktak eta datuak zehazkiago irakurri ahal izateko, euskaltzainak kontsulta-helbidea ere eskaini du.

Ondoren, galdera eta iruzkinen txanda etorri da. Tx. Peillenek hizkuntza eta dialekto arteko mugen arazo zaila aipatu du, batzuetan bereizteko zailtasunagatik, eta aragoieraren kasua kontura ekarri du. P. Zabaletak erabilera urriko eta estatu propiorik gabeko hizkuntzen artean bereiztu beharra ere azpimarratu du, eta jasoriko informazio eskertu. P. Salaburuk katalan hiztunei buruzko datuak xehatu ditu. P. Charritonek asturieraren egoeraz galdetu du. I. Sarasolak hizkuntzen garagorabidean independentzia politikoak izan dezakeen eragina gogorarazi du.

6. Esku artekoak

6.1. Batzar-egutegia. Karpetan sarturik, Euskaltzaindiaren aurtengo azken hilabeteetako batzarrak non egingo diren iragarri da:

Irailaren 24an Atarrabian, Hileko batzar arrunta goizean eta, Ageriko Bilkura arratsaldean, *Pax de Ziganda* ikastolan izango da, *Nafarroa Oinez*-en ospakizunaren inguruan.

Urriaren 29an Baionan. Hileko batzar arrunta goizean eta Xarles Videgainen sarrera-hitzaldia bezperan, ostiral arratsaldean, udaletxean.

Azaroaren 26an Bilbon. Hileko batzar arrunta.

Abenduaren 17an, Zarautzen, Hileko batzar arrunta. Arratsaldean ageriko bikura Zarauzko Frantziskotarren komentuaren 400. urteurrenean.

6.2. Sustapen batzordeko kide berria: Jagon sailburuak Euskaltzaindiaren Zuzendaritzari *Joan Aizpurua Espin* jauna Sustapen Batzordekide izendatzeko proposamena egin zion eta berorrek ontzat eman zuen. Osoko batzarrak berretsi egin du erabaki hori. Izendatuaren curriculumak karpeta banatu da.

6.3. «Mugarik gabeko Telebista»ren aldeko kanpaina. A. Iñigo Jagon sailburuak eman du kanpaina horren berri, horren alde bildu eta egiazatuak, Estatuan guztira, 538.129ak izan direla dokumentatuz. Sinadura-biltzeak Nafarroan izandako arrakasta azpimarratu du. J.L. Lizundiak hemengo parlamentariekin, gai horri buruz bilera bat egitea komeni dela azpimarratu du.

6.4. Datu pertsonalak babesteko neurriak. Indarrean dagoen legea betetzeko, Euskaltzainburuak, ahoz, *Agencia Española de Protección de Datos* deritzon Datu Pertsonalen Erregistroan Euskaltzaindiaren datu-base hauek sartu direla azaldu die euskaltzainei: Aurkitegi Instituzionala, langileen ordutegi-kontrola, Azkue Bibliotekako irakurleen datu-basea, B eta D tituludunen zerrenda, Bezeroak eta hornitzaileak, Plazaberri eta e-AEBren posta-zerrendak, ATHC-ko berri emaileak (Ahozko Tradiziozko Hizkeren Corpusekoak), EHSko Eliz Galdetegia, eta EHHako lekukoak.

6.5. El Diario Vasco-rekiko hitzarmena. Euskaltzainburuak Gipuzkoako *Diario Vasco* egunkariarekin uztailaren 12an lankidetzahitzarmen bat sinatu dela jakinarazi du.

6.6. J. L. Davant zuberotarra emeritu. Euskaltzaindiaren arautegiak xedatzen duenaren arabera, J. L. Davant euskaltzaina, aurtan 75 urte betetzen dituelako, emeritu egoerara iragaten dela iragarri du euskaltzainburuak, eta horren ondoriozko hutsartea aldarrikatu.

Ondoren, J.L. Davantek, Euskaltzaindiari eta euskaltzain guztiei berarengan jarritako konfiantzagatik eskerrak eman dizkie, eta euskaltzain izan den 35 urte luze hauetan bidaide eta lankide izandako euskaltzainen (hilen zein bizien) laudorio eta oroitzapen laburra ere egin du. Laster bere ondokoa euskararen alde lanean ikusiko duelako esperantza eta poza ere agertu ditu, eta osasunak laguntzen dion heinean Euskaltzaindiaren eta euskararen alde lanean segitzeko asmo finkoa azpimarratu du. J. Haritschelharrek, irribarrez, emerituen «kofradia»ra ongi etorria eman dio.

6.7. M. L. Oñederraren txostena. M. L. Oñederrak bere hautaketan agindu zuen txostena, ebakerari buruzkoa, jada Zuzendaritzak jaso duela iragarri du Euskaltzainburuak, eta beraz, hitza bete duela. Hurrengo batean irakurriko da.

6.8. Hizkuntzen legea Espainiako Senatuan. P. Zabaletak, Senatuaren osoko bilkuretan, hemendik aurrera, gaztelaniaz gainera, Espainiako beste hizkuntza ofizialak ere erabili ahaliko direlako berria gogorarazi du, eta, hori dela eta, agian Euskaltzaindiak adierazpenen bat egin lezakeela. Dena den, Kataluniako estatutu berria dela eta, batzuek katalan hizkuntzaren status berriari ezarri nahiko lioketen murrizpenaz bere kezka agertu du. J.L. Lizundiak, bere kasuan, katalunierarekin solidaritate-adierazpena erakutsi beharko genukeela esan du.

6.9. Okzitaniarrek Euskaltzaindiari bisita. Euskaltzainburuak, uztailaren bederatzian Euskaltzaindiak okzitaniar talde baten bisita izan duela adierazi du, Arango haranetik eta Frantzia aldeko herrialdeetatik. Bertako egoeraren berri eman dute, eta etorkizunerako dauzkaten asmo eta proiektuak azaldu. Haiekin harremanetan egoteko gogoia agertu die euskaltzainburuak.

7. Azken ordukoak.

Bilera bukatzean banatu diren argitalpenak:

- *Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian – L’enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque*, Erramun Baxok eta Jean-Baptiste Coyosek prestatua.
- *2009ko Oroitidazkia*
- *Plazaberri (7. zenbakia)*
- *Euskaltzaindiaren gida*

Batzarra ordu bat eta laurdenean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria